



LAZKAOKO
UDALA

**2023KO MAIATZAREN 2KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeitahiruko maiatzaren bian, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ezohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Iñaki Estensoro Sarasola, Beni Goñi Padura, Eneritz Miranda Muxika eta Josu Sarriegi Zumarraga.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Iñaki Eskisabel Zurututza kontu-hartzaileak ere bileran parte hartu du.

I.- 2023KO MAIATZAREN 28AN EGINGO DIREN UDALETARAKO ETA GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDE MAHAJETARAKO MAHAIKIDEAK AUKERATZEKO ZOZKETA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Eguneko Gai Zerrendako puntu bakarrari ekin zaio, 2023ko maiatzaren 28an egingo diren Udal eta Gipuzkoako Batzar Nagusietarako Hauteskundeak direla eta Hauteskunde Mahaietako partaideak aukeratzeko zozketari hain zuzen ere, Hauteskundeetako Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 26.4 artikulua xedatutakoaren arabera.

Zozketa, Instituto Nacional de Estadística erakundearen IDA-Celec plataformaren bidez egin da, datuak Lazkaoko hautesle zentsutik hartu dira, Instituto Nacional de Estadística erakundeak bidalitako datuetatik hain zuzen.

Zozketaren ondoren Lazkaoko Udalerrian eratuko diren 6 mahaietarako presidente eta bokalak aukeratu dira, titular nahiz ordezkioak, hauen datuak horretarako prestatutako orrietan jaso direlarik.

II.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko zazpiak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.